

Sarah De Mul, *Retour San Sebastian. Opgroeien met een vaderland in de verte*. (De Bezige Bij 2017).

Itzulpena: Aitziber Rentería

Iraileko bigarren igandea zen, aste pare bat baino ez zela bueltatu ginen Donostiatik, sukaldean Lide aitaren ondoan eserita zegoen irekitako ordenagailu eramangarri baten aurrean. Donostiako Kontxako Banderaren livestreamingari begira zeuden, Bizkaiko Golkoko estropadarik zaharrena, urteko kirol-ekitaldia, ehunmila ikusle inguru zekartzana hirira. Lide maindire arrosa bizi handi baten bilduta zegoen, haren gorputza han azpian nonbait zegoela susmatzen nuen behintzat. Handiegi erositako Pasai Donibaneren kamiseta zeraman soinean. Senide batek eman zigun jaiotza opari bezala arrauntalde osoaren sinadurekin: Euskal Herrian baino beste inon atentzioa ematen ez zuen bitxikeria bat behar bada.

Pasai Donibaneren jarraitzaile izatearena familia tradizio bat zen, Aitonaren aita taldekidea izanik Kontxako Banderan munduko errekor historiko bat lortu zutenean hasiera zuena. Lideri oraingoz zirrara gehien ematen ziona zen kamiseta hark tamainaz eta kolorez printzesa baten benetako jantziaren itxura zuela, baina hala ere igande hartan pena eman zion ez zela Pasaiako trainera arrosa lehen helmugara irristatu baizik eta Bermeokoa. Baina geroxeago telefonoak hots egin eta porrota azkar ahaztu zuen. Aitona zen hiriko alde zaharretik deika, ez zioen ezer, mugikorra airean heltzen zuen soilik. Lidek belarria indarrez sakatzen zuen telefonoaren kontra egun hartan Donostiako kaleetan entzuten zen txistu ta tanboril soinu zaparradetik txintik ere ez galtzeko.

Lidek berak aukera izan balu uda hontan, Euskal Herrian geratzea nahiago izango zukeen. Bueltatzeko eguneko goiz hartan eskailburuan geratu zen, zutik hormaren kontra, burua makur eta atzamarrekin urduri jolasten. 'Ez dut joan nahi' esan zuen. Nikolas eta biok egurrezko eskailera jaisten hasiak ginen, orain gelditu eta txandaka esaten genion etortzeko. Baina ez zuen nahi, ezpainak gaindiezinezko marratxo bat bihurtu arte sakatu zituen. Aitona bere ondoan jarri eta laguntza eske atzera begiratzen zion pisuko atean zegoen Amonari. Amona kementsu ateratzen eskailburura etxeko zapatilletan beste behin bere autoritatea erabiltzeko, uda hartan azkenengoz. 'Lidetxo, joan egin behar duzu,' esan zuen Amonak eskua leunki Lideren sorbaldan jarri bitartean. Lidetxok eskolara joan behar zuen, laguntxoek faltan botako zuten dagoeneko, eta '*oma eta opak*' ere, noski. Amonak agian Lideri adorea emango zionaren justu kontrakoa esan zion eta horrez gain ilobatxoari bultzakadatxo antinatural bat eman zion eskailerarantz. Orduan soilik hasi zen Lide mugitzen.

Aitona gero gurekin etorri zen lurrazpiko parkingera. Alde zaharretik gure ondoan zetorren Lideren eskutxo eskuan zuela, txistuka, basotik txangoan dabilen ipotxa bailitzan. Parkingera helduta agur esan genion. Han geratu zen utzitako auto ilaren artean, zapi zuri batekin agur eginez eta bere ohiko irribarreaz, oraingoan piskat behartua ematen zuena. Bidean ixiltasuna zen nagusi autoan, *la douce France* igarotze-gune bat zen igarotzeari berari esker existitzen zena, nire oinetan plastikuzko poltsa mugitzen zen soilik, Amonak prestatutako bokadilloak barruan, kriski-kraska alde batera ta bestera. Tarteka bideko jatetxe edo gasolindegiren baten gelditzen ginen, Marc Augé frantziar antropologoak 'ez-toki' deituriko toki inpersonal hoietan. Gasolina-hornigailuaren aurrean, *self service* jatetxean, kafe makinaren ondoan, beste bidaiari batzuekin egiten genuen topo. Bertan gurutzatzen ziren abutzuko goiz bero hartan bidaiarion ibilbideak, makroekonomiak eta mundu politikak, beldurrak, itxaropenak, desirak, eraginduak, bultzatuak eta eramanak. Zeintzuk ziren Frantziako autobide hartako bide ertzean aurkitzen ziren pertsona guzti hoién sustraiak? Zein zen haien helmuga: oportokiren bat, zamalanetarako toki industrialak, salmenta-tokiren bat, bigarren etxe den urruneko herrialderen bat? Ez zen garrantzitsua, hemen danok ginen berdinak: aldi baterakoak eta nonbaiterako bidean.

Hamasei ordu ondoren Anberesera heldu ginenean, 'Etxea bezain toki hoberik ez da' esakeraren iraugitze-data pasatua zela gertatu zen, izozgailuan geratutako jakienarekin batera. Eguneroko errutina azkar berreskuratu genuen arren, halako sentipen bat geratu zitzaigun bueltaka, nonbait gure etxea kable luze batekin uztartuta geratu zela Ozeano Atlantikoak Pirineoekin topa egiten zuen lekuren batean. Itzuli eta berehala, Anberesen bizi zen, lanera ta eskolara joaten zen familia estandarra ginen berriro. Baina Euskal Herria gurekin batera bidaiatu zen, ikustezin eta irristakor, hodei bat autoaren gainetik.

Jendeak oporrei buruz galdetzen zigunean ez genuen xehetasun askorik ematen gehienetan. Gu ez baiginen oporretan ibili, behintzat ez beste batzuk oporrei ematen zieten zentzuan. Ez genituen abentura zirrargarriak bizi izan, ez genituen leku barriak aurkitu. Batez ere, ahalik eta denbora gehien pasatu genuen aspalditik ezagutzen genuen jendearekin eguneroko bizitzan falta zitzaizkigun lekuetan.

Bueltatu ta lehenengo asteetan Nikolasek bere maleta ikutu gabe utzi zuen etxeko sarreran. Ematen zuen gure itzulera zen gertaera burutua modu horretan ukatu nahi zuela, edo gutxienez agerian utzi etxe hau ere aldi baterako geralekua izan zitekeela. Egunero joaten zen lanera Anbereseko multinazional batera, mundu osoko beste hainbat ingeniariarekin. Elkarbizitza multikulturalari buruzko eztabaidetan inoiz entzuten ez zen leku horietariko bat zen. Han kultura edo hizkuntza ezberdintasunak ez ziren ikerketarako trebetasuna eta eraginkortasun enpresariala bezain garrantzitsuak. Nikolasek bere lana maite zuen, bizitza Anberesen baita, eta hala ere goizero laguntzen zion Lideri data adierazten 'Nire lehen egutegian' eta susmatzen nuen Nikolasek egunak zenbatzen zituela oraindik zehaztugabeko etorkizuneko dataren baterarte.

Lidek erabaki zuen oraingoz hizkuntza eta tokien arteko muga onartuez paso egitea. Asteetan neerlandera zabar batez mintzatu zen, hain zegoen euskarazko esaldiz eta hitzez lardatua bertatik pasatzen zirenek euskara ikastaro trinko bat eskatzen ziotela ia. Denbora pasa gogoko berri batekin ere itzuli zen, kutxazain batek emandako logodun globo batekin aritzen zen. Globo hartan buruhandiak erabiltzen zuen puztutako behi-puxikaren ordeko perfektua ikusi zuen. Eta korrika bizian zebilen bere inguruan joka egongelan zehar, orruga: 'buruhandia naiz'. Etxean ohe ertzean Lideren zai geratu ziren biztanleen artean ere azkar piztu zuen giro berria. Oblomov eta Sushu berriz lagunaren artean jarri zituen – bainila usaidun haurtxo panpin beltzarana, Beltzi txakur beltza, '*love Australia*' bufandatxo zeraman kanguroa. Gurekin bidaiatutako Errealeko maskotak azkar aurkitu zuen lekua beste panpinen artean eta etorkin estatusa eduki arren ez zuen batere integrazio arazorik. Lidek panpinei batzutan euskaraz besteetan neerlanderaz hitz egiten zien, eta arazo gabe ulertzen zioten antza. Panpina bakoitza norengandik jaso zuen zehatz-mehatz gogoratzen zuen arren, loradun tapakiaren gainean bizi zen peluxe-gizartean ez zen bereizketarik egiten jatorri edo hizkuntzaren arabera. Panpin eta peluxe guztiak berdinak ziren Lideren legepean, soilik bihurriei egiten zien errieta eta aldi baterako erbesteratzen zituen logelako bazterrera.

Denbora pasa ahala Donostian igarotako uda oroitzapen lanbrotsu bat bihurtu zen. Lidek euskara asko ikasi zuen uda hartan berriro, baina Belgikan aste batzuk pasa ondoren neerlanderak alde atera zion berriz euskarari. Flandrian bizi ginen eta hark susmatu baino eragin gehiago zuen guregan. Umeen onespenerako grina ez da gutxietsi behar eta kontestua ere argi ta garbi nire alde neukan. Euskara momentuz gutxiengoan hizkuntza zen baita gurean ere. Marrazki bizidun eta liburu zama berri batekin saiatu zen Nikolas euskara sustatzeko neurriak berriz ere gure etxean ezartzen. Nire buruari galdetzen hasia nintzen Lideren patua haren euskal aurrekariekin gure etxeko oroigarrienen berdina ote zen. Urteetan zehar euskal oroigarri mordo bat bildua genuen, eta itzulera bakoitzean berriz hazten zen. Pasiluan Morgan Kompany jatetxeko poster bat zegoen, egongelan Eduardo Txillidaren litografia baten erreproduzio bat, eta euskal nobelak, errezeta liburuak eta Pirritx eta Porrotxen DVDak zeuden apalategian. Objektu haiek geure etxekoak ziren, ez gabezi bat

betetzeko zeukaten ahalmenagatik, baina hartarako zuten ezintasunagatik hain justu, beraiek horren nabarmenki erakusten zutena. Euskal Herria eta Belgikaren arteko tarte geografikoa gaingaitzen zuen zubia ziren, baina era berean belgiar kanpoko munduarekiko distantziaren adierazle. Gure euskal oroigarriak soilik barruan ziren baliozkoak, hala zirudien, eta kanpoko munduan berehala galtzen zuten esangura.

Nola egiten zuten besteek, galdetzen nion nire buruari, euskalduna izan Belgikan? Behin Bruselako Euskal Etxera bisitan joan ginenean konturatu nintzen euskal eta belgiar arteko marratxo itxuraz sinpleak, atzean era askotako aukerak izkutatzen zituela. Fernand Bernier kalean, atzeko gelatxo ilun hartan mahaira eseri ginen marmitakoa jatera. Mahaia elkarbanatu genuen Bilboko gizon erdaldun batekin, frantsesez mintzatzen zen haren Bruselako emaztearekin eta beraien semeekin. Kamarerua berrogeitamar bat urteko gizona zen frantsez kutsuzko gaztelaniaz barkamena eskatzen zuena oraindik oinarrizko euskara ikastaroa baino ez zuelako. Eta geroxeago Bruselako abokatu elorriotar gazte batek Nikolas gonbidatu zuen gizonen euskal abesbatzean eta Bruselako euskal sukaldaritza taldean parte hartzera. Arrats hartan ezagutu genituen euskaldunak, erdaldunak, frantsesez mintzo zirenak, waloniarrak, flandiarrak, frantsesak, espainiarrak, belgiarrak, laburbilduz, nazionalitate, mota eta jatorri orotariko jendea. Lehen ikusian ezer gutxi zuten elkarrekin amankomunean, agian arrats hartan Bruselan euskaldun talde bat aurkitzeko itxaropena izan ezik. Arratsa igaro ahala taldeak forma hartu zuen topaketan eta elkarrizketan, hizkuntza eta kulturetatik zehar zihoan bilaketa hartan jaio zen, elkarbanatzen zuten zerbaiten bila, ezagun zuten zerbait aurkitzeko nahian, antzekotasunak baieztatuak ikusteko edo hizkuntza bat elkarbanatzeko gurarian, aldi baterako ekintza batean eta ez bakarka baina soilik taldean burutu zitekeena.

Handik gutxira Amsterdameko lagun euskaldun baten bitartez eskaera bat heldu zitzaigun Euskal Herritik larunbat arratsalde batean Groenplaats plazara joateko. 2014ko apirila zen eta Groenplaatsen 'Nun hago' entzuten zen. Kioskoan gizon batek Xabier Lete euskal kantariaren 'Xalbadorren Heriotza' kanta ezaguna jotzen zuen gitarra akustikoaz, haren inguruan zirkulo erdi batean dozenaka pertsona zeuden kantuka. Dendetarako bidean zihoazen oinezkoek pausua moteltzen zuten, batzuk gelditu egiten ziren entzutera. Xabier Letek aspaldian Xalbador bertsolariaren omenez idatzitako kantak orain ematen zuen Groenplaatseko ekitaldirako bereziki idatzia zela, bereziki Hodei Egiluz Diaz gaztearentzat, zirela bost hilabete Anberesen aztarnarik utzi gabe desagertua zena. Hodei Belgikara heldu berria zen, ikasketak bukatu berria. Anberes haren *land of opportunities* zen, hantxe aurkitu zuen lehen lana, Euskal Herrian krisi ekonomikoaren ondorioz haren adineko hirutik bat langabezian zegoen bitartean. Hodeik dardoetara jolasten ikasi zuen, neerlandera ikastaro bat egiten zebilen, lagunak egiten zituen. Baina parranda gau batez Browsersvliet kalean eraso egin zioten eta ordutik ez zen Hodeiren aztarnarik ere aurkitu. Hilabete batzuk pasata Anbereseko polizia desagertzearen ikerketa moteldu zuen. Euskal Herriko hedabideek kasua gertu-gertutik jarraitzen zuten oraindik. Uda hartan senide eta lagunak Hodeiri buruz galdetzen ziguten behin eta berriz, baina beraiek gehiago zekiten azkenengo egoeraz guk baino.

Hodeiren jaioterrian, Galdakaon, haren zoriari buruzko ziurgabetasuna oinaze-fantasma kroniko baten moduan geratu zen inguruan. Hodeiren gurasoak, lagun eta ezagunak, maiz etortzen ziren Anberesera haren bila ibiltzeko. Anbereseko lagun eta lankideekin batera zeharkatzen zuten hiria eta behin eta berriz esekitzen zituzten poster berriak Hodeiren argazkiarekin kaleetan zehar. Denbora igaro ahala ekintza haiek egoerari buru egiteko modu bihurtu ziren, Hodeiengana hurbiltzen zituen oroi-erritu bat. Ordutik Hodei inoiz baino agerikoago zen Anbereseko kaleetan, desagertua bazen ere. Haren erretratua milaka ikusten zen hirian, desagertzearen lekuko ixila bailitzan eta hura onartzearen aurkako erresistentzia.

Hodeiren lagun eta senideek Groenplaatsen Xabier Leteren kanta abestu ondoren, minutu luzez gelditu ziren txaloka, Hodeirentzat. Batzuk pankartak heltzen zituzten 'zure bila' testuarekin. Lideri azaldu nionean Hodei desagertu zela eta gurasoak bila zebilizkiola, ulerkortasunez baieztuko keinua

egin zuen buruaz. Galtzea ez zen atsegina, batez ere toki ezezagunetan, Lidek berak ere bazekien hori. Geroago, posterrak euriaren eraginez kolorge geratzean eta baragarriren batzuk Hodeien erretratuan biboteak margotu zituztenean, orduan oraindik ere eskuaz agur egiten zion Lidek Hodeiri Anbereseko kaleetan posterra ikusten zuen bakoitzean, euskal aztarna hau hiri flandiar hontan. Nire buruari galdetzen nion Lidek poster haietan bere buruarengan ezagutzen zuen zerbait ikusten ote zuen, presente zegoen ausentziaren bat, ikutuezina baina orainaldikoa, haren izena legez, Hodei.

Ia urte bi geroago, hondoratutako ontzi bat Scheldeko uretatik azaleratu zutenean, Hodeiren hilotza ere atera zuten, Brouwersvliet kaletik ez hain urrun. Oraingoan, Hodeiren gurasoak azkeneko aldiz etorri ziren Anberesera, semea jaso ta Galdakaora lurperatzera eramateko. Agur-ekitaldia igande arrats ilun batean izan zen Anbereseko Museum aan de Stroom museoko zortzigarren solairuan. Groenplaatsen baino askoz ere jendetza handiagoa bildu zen. Berriz ere euskal kanta bat abestu zuten Hodeirentzat, Mikel Laboaren 'Txoria txori'. 'Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen. Bainan horrela ez zen gehiago txoria izango'. Gitarra jolearen atzean arratseko Anberes zetzan milaka argiz bustia, aurrean Hodei elkarrekin galdu zuten ehundaka pertsona. Eta kantatzen zuten: 'Eta nik, Txoria nuen maite'.